

6/2025 UDALEKO OSOKO BILKURA

2025EKO MAIATZAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Ana Elosegí Artola (EH Bildu taldea)
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2025eko maiatzaren 27an, arratsaldeko 19:04tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, eta gai-zerrendari heldu aurretik, Alkateak adierazi du badela gai bat, akats baten ondorioz, Osoko Bilkura honetako gai-zerrendan sartu ez dena, baina lehenbailehen izapidetu behar dena:

- A-14 “Lasarbe” eremuko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketaren behin betiko onespena.

2025eko otsailaren 25eko Osoko Bilkuran, Udalbatzak behin behineko onespena eman zion. 2025eko martxoaren 19ko 53. GAOn argitaratu zen, baita Diario Vasco egunkarian ere, martxoaren 21ean. 2025eko martxoaren 22tik apirilaren 23ra, biak barne, urbanizatze-proiektua jendaurrean egon da, eta bitarte horretan ez da alegaziorik aurkeztu udal erregistroan. Horiek horrela, 2025eko maiatzaren 6an, udal arkitekto teknikoak, prozedurari jarraiki, txostena egin zuen proiektuari behin betiko onspena emateko proposatuz.

Bi alderdi politikoak ados agertu dira A-14 “Lasarbe” eremuko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketaren behin betiko onspena gai-zerrendan sartzearekin. Beraz, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikuluan oinarrituta, Udalbatzak aho batez onartu du goian adierazitako gaia gaurko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartzea, ebazpenen 4. puntu gisa.



Ondoren, Alkatearen aginduz, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udaltzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- ONDORENGO BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA: 2025EKO MARTXOAREN 25EKO ETA APIRILAREN 22KOA.

2025eko martxoaren 25eko eta apirilaren 22ko osoko bilkuretako aktak onestea proposatuta, Nuria Carbonell Mirandak, EAJ-PNV talde politikoko bozeramaileak, adierazi du bere taldekideek ez dutela jaso 2025eko martxoaren 25eko akta Osoko Bilkuraren deialdiarekin batera bidalitako dokumentazioarekin. Hori entzunda, EH Bildu taldeko kideek Osoko Bilkurako deialdiko mezu elektronikoa berraztertu dute eta egiaztatu dute 2025eko martxoaren 25eko akta ez dela bidali gainerako dokumentazioarekin batera.

Horiek horrela, aurrekoak entzunda, Udaltzaz, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Atzeratzea 2025eko martxoaren 25eko Osoko Bilkurako aktaren onespina hurrengo Osoko Bilkurara.

BIGARRENA. Onestea 2025eko apirilaren 22ko Osoko Bilkurako akta.

2.- 2025-2027 URTEETARAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, gardentasun printzipioaren babesean, Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egiteko beharra ezartzen du, lortu nahi diren helburuen eta ondorioen eta aurreikus daitezkeen kostuen eta horien finantzaketa-iturrien arteko lotura jasotzen dituen, dirulaguntzen bidez bete beharreko behar publikoak eskura dauden baliabideen aurreikuspenekin egokitze, sortu aurretik eta urte anitzetan.

Era berean, legeak jarraipen-sistema bat ezartzen du, helburuen kontrolaren eta ebaluazioaren bidez. Sistema horri esker, lortu nahi diren helburuen lorpen-mailara iristen ez diren dirulaguntzen lerroak edo inbertitutako baliabideen mailara egokitzen direnak aldatu edo ordezkatu ahal izango dira eraginkorrak eta efizienteagoak diren beste batzuekin, edo, hala badagokio, ezabatu ahal izango dira.

Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua oinarritzkoa da, eta, beraz, dirulaguntzak eman nahi dituzten udal guztiek, aldeztu aurretik, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu behar dute. Plan hori, hain zuzen

ere, onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzeko edo helburu publiko bat sustatzeko helburua duten politika publikoak planifikatzeko tresna gisa sortuko da. Plan horren edukiak bat etorri behar du 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren atariko tituluaren III. kapituluaren 1. atalean.

2022-2024 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2022ko apirilaren 19ko 72. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu zen eta bere iraunaldia 2024ko abenduaren 31ra arte izan zen.

Bestalde, 2025 ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak 2025eko apirilaren 22an egindako ezohiko Osoko Bilkuran onartu ziren behin behinean, 2025eko apirilaren 28ko 78. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu ziren, hamabost egunez jendaurrean egoteko eta interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izateko (2025eko maiatzaren 20an adierazitako epea amaitu zen alegaziorik gabe) eta, 2025eko maiatzaren 21ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera kapituluka laburtuta bidali ziren argitaratu zitezen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 15.3. artikuluan araututakoa betez.

Beraz, oraingo honetan, 2025-2027 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa proposatzen da eta, bertan, 2025erako onartutako udal-aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntzak jaso dira.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa behin behinean onartzen bada, erabaki hori jendaurrean jarri beharko da, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iriztitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da, eta dagokion iragarkia probintziako aldizkari ofizialean, udal iragarki-taulan zein egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Aurrekoak entzunda, Nuria Carbonell Miranda zinegotziak, EAJ-PNV talde politikoko bozeramaileak, hitza hartu du eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren proposamenari buruz Idazkari Kontu-hartzaileak egindako txosten juridikoa ekarri du hizpidera; bertan, hainbat inkoherentzia, nolabaiteko uniformetasun-falta eta edukian zenbait akats aipatzen dira, eta, horregatik, bere taldeak jakin nahiko luke ea zer erabaki proposatzen den horiei buruz. Era berean, Idazkaritzaren txostena Osoko Bilkuraren deialdiaren data berekoa izateak nolabaiteko komunikazio falta adierazten duela komentatu du.

EAJ-PNV talde politikoko bozeramaileak esandakoari erantzunez, Alkateak adierazi du, hain zuzen ere, onartu nahi den Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren proposamena berak egin duela, aurrekoaren testua erreferentziazat hartuta eta, aldaketa handirik gabe, teknikariek beren proposamen-txostenetan jasotako koadroak gehituta. Bestalde, Idazkari Kontu-hartzaileak bere txostenean adierazitako akatsei eta hobetu beharreko alderdiei dagokienez, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa proposatu den bezala



onartzea proposatu du, eta, onartu ondoren, aldatzeko beharra baloratuko dela adierazi du.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udaltzazak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Anoetako Udaleko 2025-2027 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa behin behinean onartzea.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, ordura arteko behin-behineko erabakia behin betikotzat joko da, eta dagokion iragarkia probintziako aldizkari ofizialean, udal iragarki-taulan zein egoitza elektronikoan argitaratuko da.

3.- IZFE, S.A. INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du IZFE, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Udal honen arteko lankidetzahitzarmenaren (Udalari zerbitzu informatikoetan laguntza teknikoa emateari buruzkoa) indarraldia 2024eko abenduaren 31n amaitu zela. Adierazitako epea bukatu baino lehen, IZFEtik luzapenerako dokumentu gehigarri baten zirriborroa jaso zuen Udal honek, baina ez da horren gaineko ebazpenik eman. Horiek horrela, 2025eko otsailaren 19an, Idazkari Kontuhartzaileak Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena luzatzearen aurkako txosten juridikoa egin zuen. Txosten horretan, halaber, isilbidezko eta behin amaitu ondorengo luzapenak legez debekatuta daudenez eta aurreko hitzarmenaren indarraldia 2024ko abenduaren 31n bukatutzat jo behar denez, beste hitzarmen berri bat sinatzea proposatu zuen, Udal honek zerbitzu informatikoak jasotzen jarraitu dezan.

Horiek horrela, 2025eko otsailaren 25ean egindako ohiko Osoko bilkuran, Anoetako Udaltzazak, aho batez, honakoa onartu zuen:

“ ...

EBAZPENA



LEHENENGOA. Onartzea Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetza-hitzarmen berria, espedientean jasotako edukiarekin.

BIGARRENA. 2025eko ekitaldirako 26.166,23 euroko kopurua onestea eta xedatzea, 1 0000.227.920.20.07 2025 “Kontratua.IKT zerbitzua.BB.OO.” aurrekontu-partidaren kontura.

HIRUGARRENA. Alkateari ahalordea ematea hitzarmena sinatzeko, baita hitzarmena aplikatzeko behar diren gainerako kudeaketa eta izapide guztietarako ere, hitzarmena luzatzeko aukera barne.

LAUGARRENA. Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari ebazpen hau jakinaraztea.

BOSGARRENA. Hitzarmena argitaratzea egoitza elektronikoan (www.anoeta.eus), 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak, 5.4 eta 8.1.b) artikuluetan xedatutakoari jarraituz, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren onarpenaren iragarkia.

...”.

Hala ere, Udalbatzak hartutako erabakia eta sinatu beharreko hitzarmen berria Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari helarazi ondoren (edukiari dagokionez berdina eta betebeharrak ekonomikoei dagokienez eguneratua), Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea hitzarmen berria sinatzearen aurka agertu da, eta Udal honi eskatu dio aurrekoa luzatzeko, epe kanpo eta, beraz, legaltasunetik kanpo, beste udalerririk askok egin duten bezala (IZFErekin izandako elkarbizketen arabera).

Tankera bereko arazoa gertatu zen etxetik etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzeko eta hasierako indarraldiari amaiera emateko eranskina onartzerako orduan, eta kasu horretan, 2025eko martxoaren 25ean egindako ohiko Osoko Bilkuran, Udalbatzak Idazkari Kontu-hartzaileak 2025eko martxoaren 19an egindako luzapenaren kontrako txostenaren aurka jokatzeko eta eranskin hura epe kanpo eta, beraz, legaltasunetik kanpo onartzea erabaki zuen.

Aurrekoak entzunda, eta espedientean jasotako dokumentazioa kontuan hartuta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Baliogabetzea 2025eko martxoaren 25eko ohiko Osoko Bilkuran Udalbatzak emandako ebazpena, Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetza-hitzarmen berria onartzearena.

BIGARRENA. Onartzea Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetza-hitzarmen gehigarria, zeinaren bitartez goian

adierazitako hitzarmena beste lau urtez luzatzea onartzen den (2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra).

HIRUGARRENA. Alkateari ahalordea ematea dokumentu gehigarria sinatzeko, baita hortik eratorritako gainerako izapideetarako ere.

LAUGARRENA. Izfe, S.A. - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteari ebazpen hau jakinaraztea.

BOSGARRENA. Argitaratzea sinatutako dokumentu gehigarria, hitzarmenarekin batera, egoitza elektronikoan (www.anoeta.eus), 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoak, 5.4 eta 8.1.b) artikuluetan xedatutakoari jarraituz, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean horren onarpenaren iragarkia.

4.- A-14 “LASARBE” EREMUKO URBANIZAZIO PROIEKTUKO 2. FASEAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta A-14 “Lasarbe” sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketaren aurrekariak azaldu ditu. Besteak beste, 2024ko martxoaren 21eko Osoko Bilkuran, Udalbatzak hasierako onespina eman zion A-14 Lasarbe sektoreko plan partzialaren 2. aldaketa puntualari, eta jendaurrean jarri zen. 2024eko urtarrilaren 30eko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Diputatuaren Foru Agindu bidez (FA-ML-2025-0006), behin betiko onespina eman zitzaion lehen adierazitako aldaketari. Bestalde, A-14 zatian egin beharreko aldaketak eta Plan Partzialaren 2.aldaketaren beharra ikusita, Udalak Hirigrama Kooperatiba Elkarte Txikia enpresa kontratatu zuen “A-14 Lasarbe” sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketa idazteko. Aldaketaren proiektua 2024ko ekainaren 21ean, 744. sarrera-erregistro zenbakiarekin, aurkeztu zen Udaletxeko erregistroan ondorengo dokumentazioarekin:

- A dokumentua: memoria, dagozkion eranskinekin (segurtasun eta osasun azterlana, kalitatea kontrolatzeko programa eta hondakinak kudeatzeko azterlana).
- B dokumentua: aurrekontua.
- C dokumentua: baldintza-agiria.
- D dokumentua: planoak.

2024ko azaroaren 14an, 1526. sarrera-erregistro zenbakiarekin, Gilen Txintxurreta Beitia arkitektoak proposatutako aldaketen aldeko txostena aurkeztu zuen Udaletxeko erregistroan. Txosten horren ondorioetan jasotzen denez, “A-14 LASARBE sektorearen urbanizazioaren 2. fasearen aldaketak dokumentazioaren oinarritzko baldintzak betetzen ditu, ez du Egitura Erregimena aldatzen eta proposatutako helburuak betetzeko proposatutako aldaketak teknikoki justifikatzen ditu. Horrenbestez,

eta aurretik azalduta, planteatutako aldaketaren aldeko txostena egin da, eta Udalbatzari proposatu zaio espedientearekin jarraitzea”.

2025eko otsailaren 18an, udal arkitekto teknikoak -14 “Lasarbe” sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketaren gaineko txostena egin zuen, proiektua Udalbatzaren erabakiaren mende jartzearen aldekoa.

Kontuan hartuta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194. eta 196. artikulua, 2025eko otsailaren 25eko Osoko Bilkuran, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen hasiera batean onestea A-14 Lasarbe sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketa, jendaurrean jartzea espedientea, hogeiei eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean, Udaletxeko Iragarki Oholean eta www.anoeta.eus web orrian argitaratuko diren ediktuen bidez.

Iragarkia 2025eko martxoaren 19ko 53. GAOn argitaratu zen, baita Diario Vasco egunkarian ere, martxoaren 21ean.

2025eko martxoaren 22tik apirilaren 23ra, biak barne, urbanizatzeko proiektua jendaurrean egon zen eta, bitarte horretan, ez da alegaziorik aurkeztu udal erregistroan.

Horiek horrela, 2025eko maiatzaren 6an, udal arkitekto teknikoak, prozedurari jarraiki, txostena egin zuen proiektuari behin betiko onespina emateko proposatuz.

Kontuan hartuta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 194. eta 196. artikulua, aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertutik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

EBAZPENA

BAKARRA. Behin betiko onestea A-14 Lasarbe sektoreko urbanizazio proiektuko 2. fasearen aldaketa.

II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

5.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2025eko martxoaren 15etik maiatzaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

Azalpen horiek emanda, zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

6.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

141. DEKRETUA	
2025.03.25.	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.027,14 €
Kontzeptua	
Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2025eko martxoko nomina	
Laburpena	
Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2025eko martxoaren 25ean eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:	
“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.	
II. Jose Miguel Otaño Garcaren urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkutututako legez kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.	
III. Jose Miguel Otaño Garcarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.”.	

144. DEKRETUA		
2025.03.26.		
Hartzekodunak		IFZ / IFK
Securitas Direct España, S.A.U.		A26106013
Prozedura		
Alarma-mantenu zerbitzua		
Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
2501C00452346	2025.01.01.	306,15 €
Laburpena		

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2025eko martxoaren 26an egindako eragozpenezko txostena.

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeke.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Securitas Direct enpresarekin formalizatutako kontratua (legez kanpoko, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; harrezkeroztik Anoetako Udalak Securitas Direct enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarrizko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak alarma-mantenu zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

145. DEKRETUA

2025.03.26.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
SARENET, SAU	A48714489

Prozedura
Zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
P25011170	2025.01.02.	291,92 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2025eko martxoaren 26an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Orain arte Sarnet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturetan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberagatik.

- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen araberakoa;

- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;

- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

- Gainera, ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

151. DEKRETUA

2025.03.31.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A.	A79022299

Prozedura

Zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
3943674	2024/05/31	13.147,99 €
3956538	2024/08/26	13.411,68 €
3960417	2024/09/16	13.805,53 €
3960418	2024/09/16	11.360,13 €
3961850	2024/09/30	13.113,98 €
3967539	2024/10/31	11.442,13 €
3968622	2024/10/31	11.992,60 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2025eko otsailaren 25ean egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Kontratuaren gehienezko gauzatze-aurrekontu-muga gainditu egin da.
- Gauzatze-aurrekontu-muga gainditu baino lehen ez da kontratua aldatzeko espedienterik izapidetu.
- Gainera, gauzatze-aurrekontu-muga gainditzerako momentuan, dagokion aurrekontu-partidan jasotako kreditua ez zen nahikoa behar berriei zegozkien gastuak estaltzeko.
- Gauzatze-aurrekontu-muga gainditu baino lehen ez da kreditua aldatzeko espedienterik izapidetu. Kontran, kreditu-aldaketa espedienteak kreditua agortu baino askoz beranduago izapidetu zen, 2024ko abenduaren 26an.
- Gauzatze-aurrekontu-muga gainditzeaz (eta aurrekontu-kreditua agortzeaz) geroztik igorritako fakturei dagozkien gastuak (2025eko apiriletik urrira bitartekoak) ez dira ez onartu ez fiskalizatu; beraz, ezin da aldeko esku-hartzerik egin aldez aurretik onartu ez diren gastuei erantzuten dieten fakturen obligazioak aitortzeko.

Hortaz, kontuan izanda 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, bigarren paragrafoan eta hirugarren paragraforaren c. letran–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espedientearen izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

198. DEKRETUA

2025.04.23.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177

Prozedura

Hornidura

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
844866767	2025.02.07.	310,11 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2025eko apirilaren 23an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede

berdina beste enpresa batekin kontratatu.

- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.

218. DEKRETUA

2025.04.28.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.027,14 €

Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2025eko apirilko nomina

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2025eko apirilaren 28an eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“I. Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez ditu betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak.

II. Jose Miguel Otaño Garcaren urteetan zehar kontratazko “programa” baten barruan ezkutatutako legez kontrako kontratazio kateatuak dira eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari da.

III. Jose Miguel Otaño Garcarenak betetzen dituen eginkizunak egiturazkoak dira eta, beraz, horiek berrirori ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko luke (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin beharko luke.”.

252. DEKRETUA

2025.05.13.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
TAI GABE DIGITALA SL	B75034793

Prozedura

Hornidura

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
5269	2025.01.03.	660,00 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2025eko maiatzaren 13an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengoa adieraziz:

Kontzeptua: Gara egunkariaren harpidetza.

Esandakoa fiskalizazioaren xede den kasura eramanez gero, egiaztatu da, kontratu txikien ezaugarriak betetzen badira ere (harpidetza-kontratua), ez direla betetzen kontratu-mota hori baliozkotzat jotzeko eskakizunetako bat ere ez, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik.

Beraz, ulertu daiteke Alkateak ahoz egindako kontratazio baten faktura baten aurrean gaudela, kontratazio-prozedurarik gabe egindakoa, baina hornidura-kontratu txiki batekin bat etor litekeela, gastuaren izaeraren (harpidetza-kontratua) arabera. Kontran, SPKLren 37. artikuluan berariaz debekatzen da hitzezko kontratazioa: “Las entidades del sector público no podrán contratar verbalmente, salvo que el contrato tenga, conforme a lo señalado en el artículo 120.1, carácter de emergencia”.

